

BALIO PROPOSAMENA

CANVAS ereduaren lehenengo pieza balio proposamena da, hau da, eskainiko duguna edota konpondu nahi dugun arazoa ondo definitzea.

Beraz, balio proposamena enpresa batek bere bezeroei eskaintzen dien onuren multzoa da eta kuantitatiboa edo kualitatiboa izan daiteke. Hala eta guztiz ere, argi izan behar dugu balio proposamena ez dela produktua edo zerbitzua, horrekin lotuta dagoen kontzeptua baizik.

Gure proiektuaren helburua, herriko taberna eta jatetxeei laguntzea da, gaur egungo egoera dela eta, hirugarren sektoreko enpresetan sekulako kalteak egon direlako. Hain zuzen ere, ostalaritza askoren lana izugarri gutxitu da eta beste zenbaitek beren tabernak ere itxi behar izan dituzte Covid protokoloak direla eta. Beraz, kooperatibismoa eta bizikletak modu jasangarri eta etikoan bateratzeko asmoarekin jaiotako kooperatiba da JakiGo.

Gure zerbitzuari esker, tabernara joan nahi ez duten herritarrek, produktua kontsumitzeko aukera izango dute, lehen aipatu bezala, mugitzerik behar izan gabe. Kontsumitzaileek tabernara deitu eta nahi dutena eskatuko dute lehendabizi. Tabernak, eskatutakoa prestatuko du eta ondoren JakiGo-ri (guri) deitu eta garraioa prestatzen hasiko gara. Etxetik irten ezin direnentzat eta irten nahi ez dutenentzat aukera paregabea dela iruditzen zaigu, fisikoki tabernara joateko beharrik ez dutelako.

Bestalde, garraioagatik ordainduko den prezioa oso baxua izango da eta Beasainen berritzailea den ideia/proiektua ere izango da, ez dagoelako guk egin behar duguna egiten duen bestelako enpresarik. Beraz, horrelako zerbitzu bat eskaintzen duen lehen enpresa izanik, gogo bizia dugu erronka berri honi aurre egiteko eta horrenbeste denboran zehar egindako lanak azkenik bere fruituak emateko. Gainera,

etorkizun batean arrakasta izango dugula ere uste dugu, esan bezala proiektu berritzaile eta erakargarria delako herritarrentzat.

Horrez gain, gure enpresan ingurumena babesteko nahi handia dago eta horregatik erabaki dugu elikagaiak bizikletaz garraiatzea eta ez adibidez, motoetan edo autoetan. Modu honetan, natura errespetatu eta kontserbatzen dugu, kutsadura ahal den neurrian murriztuz. Izan ere, gure planeta zaintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, zaintzen ez badugu, kalte handiak ekarriko baititu (aldaketa klimatikoa, adibidez) eta desagertu egingo baita. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu ahal den neurrian herritarrak sortzen dugun kutsaduraz kontzientziatzea, eta egoera aldatzeko gure esku dagoen guztia egiteko prest gaude.

Laburbilduz, azaldu dugun bezala, gure enpresa, tabernak/jatetxeak prestatutako jakiak etxeetara eramatean datza, betiere ingurumena kutsatzen ez duten garraiobideak erabiliz.

